



Haurrak zein helduak horma-irudia egiten, atzo, Orendainen. ASIER IMAZ

Elduaindarrak elkartzen hasi dira, kultur jarduerak antolatzeko

Aurreko kultur taldeak jarraipenik izan ez zuenez, hainbat herritar batzen hasi dira. Herritar oro gonbidatu dute parte hartzera **/3**



«Gaurko kopletan hitzek beste pisu bat dute»

Xabier Berasaluze
'Leturia'
Pandero-jotzailea

'Koplarik koplak' liburuan 70eko hamarkadatik gaur arte bildutako 152 koplak jaso ditu. Gaur egungo gaietara egokitu behar duela koplak dio **/6**

Indarkeria matxistari ezetz esan diote

Feminismoaren kontrako diskurtsoak hauspotzen dituzten egiturak salatu dituzte Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean. Eskualdeko herri gehienetan elkarretaratzeak egin dituzte, eta Tolosan manifestazio jendetsuak izan dira **/4-5**



EGUZKITZA

sagardotegia

Abenduaren 6tik
aurrera
zabalik!

*Beritako sagarribin
egindako sagardoa*

ABENDUKO ORDUTEGIA

Bazkariak:
Ostirala, larunbata
eta igandea

Afariak:
Ostirala eta larunbata

**Deitu eta
egin zure erreserba!**

Usabal Auzoa, 25
TOLOSA
Tel: 943 67 26 13

2026ko ordenantza fiskalak, onartuta

Urriko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak • Kasu gehienetan, % 2,7ko igoera orokorra aplikatuko da tasa, zerga eta prezio publikoetan

**-JOSU ARTUTXA
DORRONSORO**

Tolosako udalbatzak 2026ko ordenantza fiskalak eta prezio publikoak onartu zituen urriko osoko bilkuran. Kasu gehienetan, Hego Euskal Herriko inflazioaren datuetan oinarrituta, % 2,7ko igoera orokorra aplikatuko da tasa, zerga eta prezio publikoetan.

Salbuespenetako bat Ondasun Higiezinaren Zergarena da, izoztu egingo baita. 2026tik aurrera, gainera, familia ugariei bizikidetzaren unitatearen sarrearen arabera hobaria emango zaie. Udal gobernuaren aldeko botoekin eta oposizioaren aurkakako botoekin hartu zuten erabakia.

Bihotza Agirre EAJko zinegotziak eman zituen bilkuran erabakiaren aurka bozkatzearen azalpenak. Adierazi zuen kontribuzioa bera aldatzea eskatu zutela, hau da, herritarrek ordaindu beharrekoa izoztea; ez zerga-tasa, diru kopuru absolutua baizik. «Zerga-tasa % 1 jaitea eskatu genuen. Udalak gaur egun daukan osasun

finantzarioa oso ona dela iruditzen zaigu, eta guretzat pena da hau egin ez izana».

Estitxu Kortejarena Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza zinegotziak erantzun zion Agirrerri: «Altu dago, eta horregatik proposatu genuen jaitea». Gaineratu zuen urtez urte joango direla, «zuhurragoa» iruditzen zaielako. «Urte luzetako kontua da. Gerakina topera egon da lehenago ere, aurreko zortzi urteetan, eta ezin da erabili zergak jaisteko».

Udalbatzak aho batez onartu zuen zenbait ordenantza fiskal % 2,7 igotzea: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, hiri-izaerako lurren balio gehikuntzaren gainekoa, zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasa, herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari lotutakoa eta zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituenak.

Taxiei dagokienez, % 3,1eko igoera aplikatuko da, Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak



Usabal industriaguneko esparru bat berriro landa-eremu izatera igaroko da. TOLOSako UDALA

eta Agitax taxi elkarteak hala proposatuta. Udalak esan duenez, Agitaxek Gipuzkoarako egin duen ustiapen kostuen ikerketan oinarrituta aplikatu da igoera.

Hobarietaz, eztabaida
Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren kasuan, hobariak izan dira hizpide. Udal gobernuaren aldeko botoekin onartu da zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzea, hau da, % 95eko hobaria izatea Alde Zaharrean, Santa Klara eremuan –eraberritzeari eta irisgarritasunari lotutakoak– eta Euskal Herria plazan eta inguruan egindako obren kasuan.

EAJ eta PSE-EE alderdiek erabakiaren aurka bozkatu zuten. Agirrek hartu zuen hitza berriro, erabakia azaltzeko. «Pozik» daudela esan zuen, egin zituzten hiru proposamenetatik bat, hobariak gehien- goa izatea, txertatu delako.

Bestetik, 36 urtetik beherako herritarrei hobariak aplikatzea eskatu zuten jeltzaleek, modu progresiboan, errentaren arabera. «Egingarria» iruditzen zitzaiela esan zuen Agirrek: «Badakigu diru laguntza asko daudela, baina etxebizitza arazoa ez da bi egunetan konponduko; ekintza bat baino gehiagorekin elikatu beharrekoa dela iruditzen zaigu».

Azkenik, Osasun sailak eta Hezkuntza sailak egiten dituzten obren hobariak gehiengora igotzea eskatu zuen Agirrek: «Instalazioak, eraikuntzak eta obrak interes berezikoak edo

udal-onurakoak izendatzen badira, zerga honetan hobaria ematea baimentzen du Foru Arauak. Ogasunean esan digute Tolosa dela Gipuzkoan hezkuntza arloan hobaririk aplikatzen ez duen herri bakarra».

EH Bilduri «egokia» iruditu zitzaion gazteei begira proposamena. «Baina zerga honen helburua ez da pertsonei ematea, eraikinari berari baizik», gaineratu zuen Kortejarenak. «Ogasunean esan ziguten ez duela izan behar eraikinak berak interes sozialekoa, ekintza bera izan zitekeela, eta gazteek etxebizitza erosi eta berritzea interes sozialekoa iruditzen zaigu», erantzun zion zinegotzi jeltzaleak. Joxe Mari Villanueva PSE-EEko zinegotziak begi onez ikusi zituen EAJk egindako eskaerak: «Eraikitzaileak baziren, ez dut ulertzen zergatik ez diren onartu».

Sarrerak eta gastuak orekatzearen beharra azpimarratu zuen Kortejarenak. «Une honetan ez daukagu zorrik, eta gerakinak inbertsiotarako dira. Herri bakoitzak bere hobari-sorta dauka, eta guk ez dugu beste herri batzuetan jasotzen dutena adina diru jasotzen zenbait zergetatik. Adibidez, merkataritxikiei ematen diegun hobaria ez dut inon topatu».

Zerbitzu-kontratuak

Tolosako udal eraikinen eta hiri altzarien garbiketarako zerbitzu-kontratua beste urtebetez luzatzea ere onartu zuten, aho batez. 2021ean sinatu zen kontratua, milioi bat euroko balioarekin. Bi urteko iraupe-

na zuen, urtez urte luzatzeko aukerarekin, hiru urtera arte. Hau, beraz, azken luzapena izango da.

Kontratua luzatzeaz gain, azken urtean eraikitako eta publikora irekitako elementu berriak txertatzeko zerbitzu-kontratua aldatzea onartu zuten. Belate eta Larramendi auzoen arteko pasabideko igo-gailuen eta Beotibar frontoiko komun automatikoaren garbiketari txertatu dute.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua ematen duen Matia Goxara SLU enpresari hitzartutako zerbitzu-kontratuari dagokion behin betiko bermea, 97.511 eurokoa, itzultzea ere aho batez onartu zuen udalbatzak.

Usabal industriagunea

Bestetik, udalbatzak aho batez onartu zuen Usabal auzora daraman errepidearen eta SAM lantegiaren artean dagoen Tolosako HAPOk 23.1 Industria Garapen berria azpi-esparrua berriro landa-eremu izatera pasatzea. Hala, eremuko bizilagunek egindako eskakizun bati erantzun dio udalak.

Gaur egun, hiri lurzoru moduan sailkatzen du HAPOk, industria erabilerarako zona gisa kalifikatuta. 2009An, HAPOk onartu zenetik, ordea, udalak ez du gauzatu bertan aurreikusita zegoen garapena. Hori dela eta, ordura arteko egoerara itzultzea erabaki dute. Hiri-lurzoru finkatu gabea izatetik, ez-hirigarria izatera pasako da, nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko landa-guneen mailakoa.

zozketak

Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu

**Patxo Telleriaren
Moko**
haur antzezlan

Abenduak 13, larunbata
18:30
Tolosako Topic

Zozketan parte hartzeko asteazkena 12:00ak arte 943 65 56 95 edo Ataria.eus

Kultur elkarte berrira batzeko deia egin diete herritarrei

Aurreko taldea desagertu egin zen errelebo faltagatik, eta herritar batzuk elkartzen hasi dira herriko kultur jarduerak antolatzeko helburuarekin

-LEYRE CARRASCO *Elduain*

Urte berriarekin proiektu berriak abiatu ohi dira, eta Elduainen urtea bukatzerako ekin diote herritarrek, kultur elkarte osatzen ari baitira. «Kultur jarduerak antolatzen aritzen zen talde bat bazegoen herrian, baina errelebo faltagatik ez zuen jarraipenik izan; bada, hori berriro ere martxan jartzeko asmoz hasi gara elkartzen», azaldu dute elkarte kideek.

Talde baten faltan, azken aldian herriko jarduera guztiak udalak antolatzen dituela azaldu dute; «oso ondo egiten duen arren, horietako asko ez dagozkio udalari antolatzea –Gabonetako eskea edo Gau Beltza bezalako jarduerak, esaterako–, herritarrok parte hartu beharko genuke antolaketan».

Azaroaren 16an bildu ziren lehen aldiz, erabakiak hartu eta jarduerak antolatzen hasiteko. «Urte amaierara arte herrian izango diren ekitaldiak zerrendatzen eta antolatzen hasi ginen eta lan banaketa ere egin genuen; azken hori garrantzitsua da, antolaketan inplikatzeko herriaren parte izatea sortzen baitu», adierazi dute.

Abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Egunaren harira, estaerako, osatu dute azaroaren 30erako egitaraua, uda-



Gau Beltzaren bueltan, ipuin kontaketa saioa egin zuten elizaren atarian. E. MAIZ

larekin eta Urdelar Biltokia-rekin elkarlanean. 10:30ean, *Arnasgunea* gara dioen horma irudia margotuko dute –eguraldi ona eginez gero–, herriko sarreran dagoen aparkalekuan. Ondoren, 12:00etan, hamaiketako egingo dute Urdelar biltokian eta, Galtzaundi Euskara Taldearen ekimenez, argazki kolektiboa aterako dute plazan, 13:00etan. Arratsaldean, berriz, argazki lehiaketako sari banaketa egingo dute, 17:00etan, eta horren ostean, 17:15ak aldera, bingo musikatua eta txokolatea izango dituzte.

Forma ematen

Elduain herri txikia da, eta zerbitzu ugari eskaintzen dituen arren, hutsuneak badira. «Aipatzekoa da, zorritzarez,

ez dugula eskolarik, eta ondorioz, gure umeei beste eskola batzuetara joan behar dute; horrek kezkatzen gaitu, gure umeei herriarekiko atxikimendua izateko oztipoa delako», azpimarratu dute.

Elkartea osatzen duten gehiengo gurasoak diren arren, badira guraso ez diren partaide batzuk ere. Horregatik, herritar guztientzako erakargarriak diren jarduerak antolatzeko asmoa dute: «ez ditugu umeei bideratutako ekitaldiak soilik egingo, herritar guztiei bideratutakoak izatea nahi dugu».

Horretarako, udalaren eta beste eragileen parte hartzea ezinbestekoa dute, eta lehen bileran horren inguruan ere aritu ziren: «Herriko nerabeek begirale bat dute eta horrekin

hainbat jarduera egiten dituzte, baina gauza guzti hauek era bateratu batean egin nahiko genituzte, elkarlanean. Batzuetan zaila da nerabeak gurasoekin eroso sentitzea, eta hori ulergarria da, baina hori gure helburuetako bat da. Hasiberriak gara, baina funtzionatzeko modua bai aldatu beharko genukeela, eta hobetu beharreko gehiago izango ditugu seguru».

Ilusioz ari dira lanean, eta elkarteari pixkana forma ematen joango direla diote; hori da transmititu nahi dutena datozen hilabeteetan antolatuko dituzten jarduerekin. Abenduan egingo dute datorren bileran, eta urte osorako programazioa osatu nahi dute. «Interesa duen herritar orok parte hartu dezake», esan dute.

Bertsoen bueltan saretu dira eskualdeko emakumeak

-ERREDAKZIOA

Bederatzi urteren ostean, datorren urtean jokatu da Gipuzkoako Herriarteko Bertso Txapelketa. Azken herriartekoan partaideen % 80 baino gehiago gizonetakoak izan zirela kontuan hartuta, emakumeentzako eta genero disidenteentzako bertso-eskolak antolatu dira eskualdez eskualde, eta Oihana Iguaran izan da Tolosaldeko taldea batzearen ardura izan duena.

Urriaren 26an egin zuten saioak eman zuena azaldu du: «Elkar ezagutzeko tarte bat izan behar zuela ikusi genuen, eta denek entzuteko prest zetozela esan zuten. Ariketa batzuk planteatu nitzkien, elkar ezagutu, saretu eta esperientziak partekatzeko, eta lehen puntu horretan igaro genituen lau orduak. Oso aberatsa izan zen».

Belaunaldi ezberdinetako partaideak elkartu ziren eta batetik bestera oihartzun handia egon zela kontatu du: «Bakoitzak bere ibilbidean zein irakurketa egiten duen ikusi genuen: hurrengo belaunaldietan bere burua erreferente zela konturatzea oso berezia izan zen, eta gazteek haien ibilbidetik igaro diren pertsonen bizipenak ezagutzea ere aberatsa izan zen».

Iguaranek esan du gehiagorako gosez geratu zela jendea, eta izango duela ekimenak jarraipena.

hilberriak
urteurrenak • eskertzak

atarian JARRITA GUKAN ETA GOIERRIKO HITZAN DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30 arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

TXIKIA (82 mm X 63,5 mm): 130 € • Harpidedunentzat 65 €

HANDIA (124 mm X 63,5 mm): 180 € • Harpidedunentzat 90 €

ESKERTZA (38 mm X 63,5 mm): 80 € • Harpidedunentzat 40 €
BEZa barne



Tolosaldeko Mugimendu Feministaren manifestazioa Tolosako Trianguloa plazatik irten zen, batukada doinuekin eta euripean. A. IMAZ



Altzoko elkarretaratzearen irudi bat. A. ARROYO

Mugimendu feministek hainbat mobilizazio antolatu dituzte Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren harira. Irakurketa desberdinak plazaratu dituzte.

Erresistentzia giroa, kaleetan

-ASIER IMAZ

Indarkeria matxistaren aurkako aldarriak lau haizeetara zabaldu ziren atzokoan, Tolosaldean. Mugimendu Feministak herritarrei kalera ateratzeko deia egin zien, konplizitate sareen aurka borrokatzera. Mobilizazio jendetsuena Tolosako manifestazioa izan zen. Mugimendu feministaren ustez, feministen kontrako gorrotozko mezuak, mezu transfoboak eta arrazistak inpunitate osoz zabaltzen ari dira sareetan, ko-

munikabideetan nahiz kaleetan. Gaineratu dute, azkenaldian, erasoak salatzea atera direnak boikotatu eta gutxietsi egin dituztela. «Hori egiten dutenak inguruan ditugun gizonak dira, haien konplizitate eta anaidea egiturak lagun. Erasotzaileak eta antifeministak ez dira izaki abstraktu bat, inguruan ditugun gizonak dira».

Horrekin batera salatu dute askok feminismoa eta indarkeria matxistaren aurkako diskurtsoa darabiltela bestela-

ko gorrotozko mezuak zabaltzeko, arrazakeria zabaltzeko, adibidez.

Tolosaldeko Itaiak, bestalde, iluntzean Tolosan egin zuen manifestazioan faxismoaren eta matxismoaren aurka borroka egingo duen indar politikoa «eraikitzeko beharra» aldarrikatu zuen: «Matxismoa normalizatzen ari da, eta ironikoa badirudi ere, indarkeria matxistaren aurkako borroka maila sozialean apalduta dago. Kaleak berreskuratzeke garaia da».

60.
DURANGOKO
AZOKA

2025eko
abenduaren
5etik 8ra

DA! KULTURAREN
JAIALDIA

Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna




Alegian, hondarrarekin marrazten, elkarretaratzearen aurretik. A.I.



Ikaztegiako eskolako haurrek emakume aurpegiak marraztu zituzten, gurasoei erakusteko. A. IMAZ



Anoetan eta Villabonan ere, herritarrek deialdiei erantzun zieten. A. ARROYO



Orendainen elkarretaratzerako murala prestatzen. A. IMAZ



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 DURANGOKO AZOKAKO 2025eko NOBEDADEEN SORTA 60DA!

Abenduaren 5etik 8ra.
Azokan bertan jaso behar da saria

durangokoazoka.eus

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Parte hartzeko deitu **943 09 06 08** telefono zenbakira edo sartu Ataria.eus webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.



2 LA PERLA Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g
DONOSTIA
943 45 88 56
www.la-perla.net

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**




3 BBK Karpin Abentura FAUNAREN BABES ZENTRUA Bi lagunentzako bina sarrera

Karrantza
infokarpin@gmail.com
626 622 245

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**





JON MIRANDA

«Kopletan asko esan beharra dago hitz gutxitan»

Xabier Berasaluze 'Leturia'

Pandero-jotzailea

Musikariak 152 kopla jaso ditu 'Koplarik kopla' liburuan. 70eko hamarkadatik gaur arte bildutakoekin genero honek urteotan izan duen bilakaera erakutsi nahi izan du

-JON MIRANDA

Tarrapatan (Elkar, 2019) zazpi egunetan panderoa jotzen ikasteko liburuaren ondoren, Xabier Berasaluze Leturiak (Villabona, 1954) *Koplarik kopla* (Elkar, 2025) izeneko kaleratu du. 45 urteko ibilbidean kantatu eta entzun dituen piezen bilduma da.

Noiz hasi zinen liburu hau prestatzen?

Aspaldikoa da asmoa. Ni plazetan 1979an hasi nintzen, baina lehenagotik ere banuen genero honekiko afizioa. Garai hartan gure artean konexioak motzagoak ziren eta ehizan bezala ibiltzen ginen. Iparraldean grabailua erosi eta erromerietan ibiltzen ginen doinu berriak jasotzen. Entzundako koplak paper batean apuntatu eta maleta zahar batean gordetzen nituen. Duela lauzpabost urte begira hasi eta konturatu nintzen altxor handi bat zegoela han sartuta; pentsatu nuen merezi zuela hura dena antolatzeak.

Zenbat kopla bildu dituzu?

152 jaso ditut. Gehiago ere bantituen baino batzuk alboratzea erabaki dut, gaur egungo ikuspegitik ez direlako egokiak: gu hasi ginenean mutilzahar eta neskazahar kontuak izaten ziren nagusi kopletan; zirikatzaileak izaten ziren gehienetan. Gerora, asko findu ziren eta beste dimentsio bat hartu zuten koplek. Olerki aldera jo eta beste aberastasun bat dute gaurkoek, hitzek pisua dute kopletan.

Nola antolatu dituzu koplak liburuan, epeka?

Nahaste-borraste bat egin dut, baina, nagusiki, hiru ataletan antolatu ditut: lehen urteetako koplak daude aurrena 1970etik 1984ra bitartekoak; ondoren Joseba Tapiarekin batera egindakoak; eta, azkenik, 2010. urtetik aurrerakoak.

Liburuan jasotako guztiak kantatu dituzu zuk?

Denak ez, baina gehienak bai. Hainbat iturritatik jasotako koplak dira. Gu gazte ginen garaian erromerietan grabatutakoak dira horietako batzuk, baina badaude kopla zaharrak ere. Liburuaren aitzakian nire eskura ezagutzen ez nituen bildumak iritsi dira: Markinako Jabier Kaltzakortarenak edota Ataungo On Juan de Arinenak, esate baterako. Sorta ederrak dira. Dena den, Xabier Amuriza da gai honetaz gehien dakiena. Hark 3.000 koplako bilduma dauka jasota. Gai az gehien dakiena da.

Aldamenean izan duzu Amuriza liburuaren idazketan?

Bai. Maleta zahar hartan aurkitutakoaz hitz egin nionean, horrekin guztiarekin zerbait egin behar genuela esan zidan. Testu batzuk zuzentzen lagundu dit eta liburuaren hitzaurreetako bat idatzi dit. Bestea, herriko Juan Kruz Igerabide lagunak osatu du; koplen inguruan egin zuen honek doktore tesia eta liburuarena komentatu nionean laguntzeko prest agertu zitzaidan.

Zuk sortutako koplarik jaso al duzu liburuan?

Ni ez naiz bertsolaria, ezta koplaria ere; nik ikasitakoak kantatu izan ditut, besterik ez. Hala ere, nire ausardia guztiarekin moldatu izan ditut kopla batzuk. Olerki liburu bat edo bertsotxo zahar bat hartu eta han esan-



«Kopla batzuk alboratu ditut, gaur egungo ikuspegitik ez direlako egokiak»

«Ni ez naiz koplaria, baina nire ausardia guztiarekin moldatu izan ditut batzuk»

«Koplak gaur egungo gaitara egokitu eta gaurkotu egin behar du»

dakoa koplara ekartzen saiatu izan naiz. Ez naiz ni bakarrik aritu modu horretara: Egañazpik 1979ko Trikitixa Txapelketa Nagusian Bilintxen bertso batzuk ekarri zituen koplara.

Zer du koplak hain bereizgarri egiten duena?

Genero motza da. Hitz gutxiarekin asko esan beharra dago eta bat-batean aritzeko arrisku handiko terrenoa da. Pentsatzen dut horregatik ez dietela txapelketetan bertsolariei ariketa bezala jartzen. Kopletako bakoitzak bi punturekin esanahi handia behar du, baina aldi berean sorta guztiak izan behar du batasun bat. Iaioa izan beharra dago kopletan aritzeko.

Molde txikiko euskal poesiarer erakusgarri dira koplak?

Hala moduz. Bertsoa edo kopla, bietan zaharrena kopla da, argi dago. Amurizak dio Itun Zaharrean hebreerazko koplak ageri

direla eta guri Mediterraneo aldetik iritsi zitzaizkigula. Horregatik kantatu izan ditugu guk jota moldean.

Koplak zein doinutan kantatu behar diren jaso al duzu liburuan?

Bai. Alde batetik, kopla bakoitzaren izenburuaren azpian, eta hitzen aurretik, hainbat datu zehaztu ditut, hala nola hitzen eta doinuaren egileak zein diren –ezagunak badira behintzat–, noiz, non eta norekin kantatuak diren edo non entzundakoak. Kopla bakoitzari moldea ere zehaztu diot eta hiru zerrenda osatu ditut liburuaren amaieran: *Porrusalda doinu arruntak*, *Trikitixa doinu arruntak* eta *Koplaren doinu finkoak*. Atal hauetako bakoitzak QR kode bat du aldamenean kantu zerrenda batera daramana.

Kopla galbidean dagoela esango zenuke?

Ez dakit esaten. Txapelketak martxan jarri eta diskoak plazaratzen hasi ginenean gu saiatu ginen zaharrak biltzen eta bertsolari zein idazleei berriak sortu zitzaten eskatzen. Gu ere ibiltzen ginen kopiatzen, hortaz ez gaude aho handiarekin ezer esateko moduan, baina uste dut, gaur egun, gazteek berriak egin beharrean aspaldikoak kopiatzen jarduten dutela. Kopla hartu eta gaurkotu egin beharra dago, gaur egungo gaitara egokitu. Esperimentatu dezakeen jendea behintzat badago, esaten dutenez Euskal Herri osoan 3.000 trikiti ikasle baitaude.

Zeinengan pentsatuta idatzi duzu liburu?

Bada, trikiti ikasle horiengan pentsatuta, adibidez, izan daiteke horientzat interesgarria. Bestela, iruditzen zait edozeinek irakurri dezakeela gustura: bertsolariek, musikazaleek edota hitzarekin jolas egitea gustuko dutenek. Barre pixka bat egiteko ere balio du liburuak.

Apartatuko al zenuke liburuko koplaren bat bereziki gus-tukoduzuna?

Nik jarritako batzuk aipatuko nituzke adibidetzat, gure eskolako ibilerak kontatzen dituenak. Amasan hasi nintzen eskolan maisu batekin eta nahiko lan bazeuzkan hark gurekin, gu erdaraz gaizki eta hura euskaraz ez baitzen batera moldatzen. Modu umoretsuan kontatzen ditut bizi izandako gorabeherak: «Gure eskolan bazan eskola klasea (bis)/ aurrerapen motza ta/ makila luzea./ Bai horixe!/ Makila luzea./ Gure eskolan bazan/ eskola klasea».

ATARIK KUDEATZAILEA BEHAR DU

FUNTZIO NAGUSIAK

- Proiektuaren jarraipen ekonomikoa egitea eta bideragarritasuna ziurtatzea.
- Plangintzak garatzea, helburuak finkatzea eta exekuzioa koordinatzea.
- Lantaldea koordinatzea eta antolatzea.
- Kanpo harremanak egitea eta mantentzea.

ESKATZEN DA

- Kudeaketa, administrazio edo ekonomia arloko ikasketak eta ezagutzak izatea.
- Kudeaketa lanetan esperientzia izatea kontuan hartuko da.
- Bestelako ikasketak eta esperientziak baloratuko dira: marketina, komunikazioa...
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako, antolaketa eta lidergorako gaitasuna izatea.
- Tolosaldean bizitzea edo eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara: gutxienez C1 maila.

ESKAITZEN DA

- Amatasun-baja bat ordezkatzeko aldi baterako kontratua.
- Lanaldi osorako kontratua.
- Abenduan lanean hastea.
- Lantokia Tolosan.

Interesa baldin baduzu, bidali curriculumak tkt@ataria.eus posta elektronikora 2025eko azaroaren 30a baino lehen.

Maier Olano eta Maddi Saizar ziklo-krosean nabarmentzen ari dira

Olano Europako Txapelketan lehiatu da 23 urtez azpiko mailan, eta Saizarrek Larrazken Txapelketa irabazi du junior mailan

-IMANOL GARCIA LANDA

Txirrindulariak ziklo-kroseko denboraldi betean daude eta eskualdeko bi txirrindulari maila oso ona erakusten ari dira. Maier Olano (Tolosa, 2007) 23 urtez azpiko mailan ari da lehiatzen eta orain gutxi Europako Txapelketan aritu da lehian. Maddi Saizar (Berasategi, 2009) lehen mailako juniorra da eta euskal egutegiko Larrazken Txapelketa irabazi du.

Olano Espainiako Kopako probetan hasi zen parte hartzen. Helburua Europako Txapelketara joatea zen, eta lortu zuen. Gijonen bigarren postua lortu zuen eta Marinen irabazi egin zuen. Hor Kopako lidergoa hartu zuen, eta gero Amurrioko eta Karrantzako probetan bigarren egin zuen.

Europako Txapelketan esperientzia «ona eta aldi berean gogorra» izan zuen Olanok: «Zirkuitua oso gogorra zen, dena hondarrarekin. Hemen go zirkuituekin ez zuen zeri-kusirik». Gainera, katea askatu zitzaion lehen itzulian eta horrekin denbora asko galdu zuen. «Zirkuitua gogorra zen, baina baita azkarra ere. Beraz, zerbait gertatzen bazitzaizun, postuak aurreratzea ez zen batere erraza». Azkenean 19. postuan amaitu zuen.

Orain geldirik dago Olano, eta abendu bukaeran hasiko da berriz, Euskadiko eta Espainiako Txapelketetan lehiatzen. Bietara irabazteko asmoz joango da. Munduko Txapelketara ere joan nahiko luke, eta Espainiako Txapelketa on bat egiten badu aukerak izango dituela uste du.

Oriako Txirrindulari Eskolan aritu da Olano, eta aurtentalaia utzi eta independente bezala aritu da. Errepiderako Gironako Massi Baix Ter taldearekin fitxatu du. «Taldea betidanik gustatu izan zait beraien dinamikarengatik. Neukan aukera onena zela ikusi-



Maier Olano, Europako Ziklo-kros Txapelketan. RFEC



Maddi Saizar, Tolosako ziklo-krosean. MECARGAZKI

ta, beraiekin sinatzea erabaki nuen». Urte hasierarekin hasiko da errepideko 23 urtez azpiko mailan. Helburua «asko ikastea» dela esan du: «Tal-dean oso txirrindulari onak daude, eta horiengandik ikasi nahi dut».

Saizar, berriz, Katalunian izan da asteburuan Gipuzkoako selekzioarekin. Larunbatean Gurbeko proban lehiatu zen, eta seigarren egin zuen. Igandean Vic herriko Espainiako Kopan aritu zen, eta «oso gustura» geratu zen laugarren postuarekin. Zu-K Limousin (Oriako Txirrindulari Eskola) taldean dago Saizar eta ziklo-kroseko Larrazken Txapelketa irabazi du, Orduñan, Elgoibarren eta Lezaman garaipean lortuta. Ane Aranburu eta Sara Aranburu taldekideak Larrazken Txapelketan biga-

rreren eta hirugarren izan dira, hurrenez hurren.

Euskal egutegian bigarren txapelketa bat jarri da abian, Iturri izenekoa. Lehen proban ezin izan du parte hartu Saizarrek, baina asteburuan Berri-zen egingo den bigarren goan ariko da. «Nire asmoa da Iturri Txapelketa irabaztea». Gipuzkoako Txapelketan ere parte hartuko du abenduaren 20an. Espainiako Txapelketara joateko asmoa ere badu, eta euskal selekzioarekin ezin bada bere kasa joango da. «Lehenengo bost postuetan sartzea da nire helburua». Ziklo-kros denboraldiko bere helburu nagusia Munduko Kopako proba batera joatea da. Ziklo-krosa gustuko du: «Jende asko egoten da ikusten, eta giroa oso polita izaten da. Emaizak ere iristen ari dira eta gustura nago».

Aulkitik

Kattalin Iztueta

Tolosa CF, Federazioko Hirugarren Maila

Badakigu akatsetatik ikasten

Puntuei dagokienez bolada ona Alavesen amaitu bazen ere, joko aldetik inoiz baino hobeto aritu ginen azkenengo partidaren. Pentsamendu hori buruan hasi genuen astea, jakin badakigulako zein diren gure helburuak talde gisa, eta beste behin gure nortasuna eta indarrak zelaian erakusteko prest ginelako.

Goizeko 10:30ak inguruan elkartu ginen Usabalen Bilbao Artizarrak taldearen kontra lehiatzeko. Kafea hartu eta berehala jaitsi ginen aldageletara, neguko hotzaren testigu. Partidaren hasiera pixka bat atzeratu bazen ere, lehiatzeko

gogotsu irten ginen bi taldeak zelaia.

Lehen 45 minutuetan ez genuen gure jokoan sartzerik lortu, nahiz eta baloiaren jabetza bi taldeena izan. Biek eduki genuen markagailuan aurreratzeko aukera, baina Marenen lanari esker, besteak beste, golik jaso gabe joan ginen atse-dendira.

Bigarren zatian partidaren gaineko kontrola hartu behar genuela bagenekien, baina ez zen erraza izan bilbotarren aurka. Minutuak aurrera joan ahala, bi taldeek golaren beharra genuen, eta azkenean, 68. minutuan, haien erdiraketa baten ondoren 0-1ekoarekin aurreratu ziren markagailuan. Burua altxa, eta azken minuturaino borrokatu bagenuen ere, ez genuen golarekin asmatu, eta hiru puntuek ihes egin zizkiguten berriro ere.

Badakigu akatsetatik ikasten, eta ziur nago inoiz baino indartsuago itzuliko garela hurrengo erronkara. Aupa Tolosa!

Egurako II. Jaialdia egingo dute larunbatean

-ERREDAKZIOA Tolosa

Tolosako Gazte Asanbladak eta Egurra Borroka Taldeak Egurako II. Jaialdia antolatu dute. Larunbatean egingo da, eta egitarauak egun osoa hartuko du. Alondegia plazan hasiko dira, eta 12:00etan Gimnasioak eta antifaxismoa hitzaldia izango da. Ondoren, 14:00etan, bazkaria egingo dute.

Arratsaldeko ekitaldiak Uz-turpe pilotalekuan egingo dituzte. 17:00etan kirol ikuskitzuna egingo dute, eta ondoren DJ Bizirik eta Ostikoka taldea ariko dira. Ezpala gaztetxean jarraituko dute egunarekin. 22:30ean kontzertuak hasiko dira, Lepue zapaldu eta Iltze taldeekin. 00:30ean, DJ Watsu B2B eta Eneko Zubiriaren txanda izango da.

Topaketan izen ematea zabalik

-ERREDAKZIOA

XXIII. Gabonetako Pilota Topaketak antolatzen hasiak dira beste urte batez, bai Intxurre Pilota Eskola eta baita Abaltzisketa, Alegia, Amezketaketa, Altzo eta Ikaztegietakoko gurasoen elkarteak ere. Aurtentalaia gainera,

hil berria den Alegiako irakasle izandako Eduardo Tormoren omenezkoa izango dela erabaki dute. Topaketan parte hartzeko izen ematea zabaldu dute, eta horretarako Abaltzisketa, Alegia, Amezketaketa, Altzo eta Ikaztegietakoko eskoletan orriak zabaldu dituzte.



Asteazkena, 2025eko azaroaren 26a

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 95€
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Eider Aierbe Isasti
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaledea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118.
ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

ASTEAZKENA 26

AGENDA

Deialdiak

Altzo. Irakurketa saioa: indarkeria matxisten irudikatzeak euskal literaturan, Iratxe Retolazarekin. 19:00etan.
Amasa-Villabona. 41. Mendi Astea: *Shukran, bizitzari mila esker.* Gurean, 20:00etan.
Berrobi. Berrobin Ttipi-ttapa, 10:00etan eskolatik abiatuta.
Tolosa. Herrikide ikastetxearen XIII. Bizikidetza Ekitaldia. Zerlausian, 10:00etan.
Tolosa. *Haurtzaro gazia* Izar de la Hoz Agirrerekin. Bidaia-rien Txokoan, 18:00etan.
Tolosa. Sally Rooney-ren *Jende normala* liburua aztertuko dute tertulia literarioan. Galtzaundi elkartearen, 19:00etan.
Tolosa. Bonbier etxeko eta kanpoko garagardo dastaketa. Bonberenean, 19:00etan.

Antzerkia

Tolosa. Titirijai: 10:00etan, Leidor aretoan, *Pintto pintto*, Anita Maravillas. 4 urtetik aurrerakoentzat. Hitzik gabea, keinu-antzerkia eta txotxongiloak. 10:30ean eta 12:30ean, Topic-en, *La forma de las sombras*, Frantziako Tangram Kollektive. 4 urtetik aurrerakoentzat. Hitzik gabea, itzalak eta mahai-txotxongiloak; 20:00etan, Topic-en, *Nil*, Minus Mal. 5 urtetik aurrerakoentzat. Hitzik gabea, txotxongiloak eta zuzeneko manipulazioa.

Musika

Tolosa. Basic partner taldea (Rennes), Bonberenean, 20:00etan.

FARMAZIAK

Egunekoa

Tolosa. Oscar Etxebeste. Gernikako Arbolaren Lorategiak 3. 943 65 10 40.

Gauekoa

Tolosa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia 7. 943 67 06 48.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea



Gaur. Zaparrak ugarriak izango dira goizeko lehen orduan, eta tarteka mardul botako du. Arratsaldean, euri gutxiago egingo du. Ipar-haizea nagusituko da, arratsaldean ipar-ekialdeko ukitu batekin. Tenperaturak antzeko jarraituko du, 7-9 graduak harrapatuz. Elur-maila goizean 800/1.000 metroan kokatuko da.



Bihar. Hodei askorekin hasiko da eguna, eta arratsaldeko lehen orduak arte han-hemenka euri zipriztinen bat edo beste izango da. Ondoren, pixkanaka atertzera egingo du, eta eguna giro lasaia amaituko da. Haizea aldakor antzean ibiliko da, eta tenperaturak koska polita gora egingo du, 11-13 graduak harrapatuz egunaren erdiko orduetan.

ATARIA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



Txotxongiloen mundura bidaia

Larunbatean hasi zen 43. Titirijai Txotxongilo Jaialdia, eta igandean amaituko da. Mundu osoko hamabost konpainia ari dira parte hartzen aurtengoan. Atzo, esaterako, El que ma queda de teatre konpainia kataluniarrak *Somion* ikuskizuna egin zuen Leidor aretoan, ia 400 haurren aurrean. Gaur beste hiru emanaldi izango dira aukeran: *Pintto, pintto*, *La forma de las sombras* eta *Nil*. JA.

ZORION AGURRAK



Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.eus · San Esteban 20, Tolosa

TXINDOKIrent

KONPONBIDEAK ALOKATUZ / ZERBITZUAK SALDUZ
Makineriaren alokairua eta salmenta

alquilerestxindoki.com

943 070 700

Altune, 4 D-E, 20212 OLABERRIA

Energia gara!

Mota guztietako ekipo elektrogenoak eskuragarri. Kontsulta ezazu!

PROFESSIONAL SERIES

